



Arartekoaren 2018R-1869-17 Ebazpena, 2018ko urriaren 30ekoa. Horren bidez, Gasteizko Udalarari gomendatzen zaio berrikus ditzala ibilgailu bat kentzeko egintza eta ibilgailua kentzea ekarri zuen udaltzain baten salaketaren ondorioz egindako zehapen-jarduerak.

Aurrekariak

1. XXX andreak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen Gasteizko Udalak itzul ziezaion Frantziako (...) matrikulako bere ibilgailua udal biltegitik berreskuratzeko ordaindutako 240,89 euroko zenbatekoa. Hark zioenez, ibilgailua kendu egin zen ezinduentzat gordetako aparkaleku batean behar bezala aparkatuta zegoenean.

Kexaren arabera, ibilgailua kentzeko tasari eta udaltzain batek aipaturiko aparkalekuan horretarako ahalmena ematen duen titulua izan gabe aparkatu izanaren kontra jarritako salaketaren behin-behineko zenbatekoari zegokien aipaturiko diru-kopurua (... zk.ko salaketa), eskatzaileak ibilgailua berreskuratzeko jarri behar izan zuena, Frantziako egoiliarra baita.

Interesdunak erakunde honi emandako informazioaren arabera, udal biltegian, ibilgailutik atera zuen, arreta eman zioten udaltzainak bertan zeudelarik, bide publikotik kendu zenean ibilgailuan ere bazegoen aparkatzeko txartela. Kexagileak zioenez, udaltzainek egiaztatu zuten txartela balioduna eta originala zela eta kexagileari jakinarazi zioten, ibilgailua kendu zenean bertan zegoen txartela balioduna zela argi egon arren, eskatu zitzaion zenbatekoa ordaindu behar zuela ibilgailua berreskuratzeko eta geroago egin behar zuela itzultzeko erreklamazioa, hori baitzen legez ezarritako prozedura. Horrez gain, informazio horretan adierazten da, txartela balioduna zela egiaztatzean, udaltzainak harremanetan jarri zirela salaketa jarri zuen udaltzainarekin. Hala, azkenengo horrek adierazi zuen, txartel hori, biltegitiko beste udaltzain horiek ibilgailutik ateratzen ikusi zuten hori, ez zela ibilgailuan zegoena bide publikotik kendu zenean.

Kexagileak azpimarratu duenez, udal biltegian exijitu zioten salaketari aurre egiteko ordaindutako diru-kopurua ordain zezala, ibilgailua itzuli ahal izateko, baita ibilgailua kentzeagatiko tasa ere.

Kexarekin batera aurkeztutako dokumentazioaren arabera, kexagileak idazki bat aurkeztu zuen udalean eta une berean ibilgailua kentzeagatiko tasaren likidazioaren





aurkako berraztertze-errekurtsotzat eta salaketaren aurkako alegazioen idazkitzat jo zuen bere idazkia. Idazki horretan, aurreko gogoetetan oinarrituz, ibilgailua berreskuratzeko ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskatu zuen.

2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, Arartekoak Gasteizko Udalera jo zuen, azaldutako gaiei buruzko informazioa eskatzeko.

Eskaerari erantzunez, kexagilearen aurka eginiko salaketaren atzeko aldea baizik ez zion igorri udalak erakunde honi, baita ibilgailua itzultzeko akta eta ibilgailua kentzeagatik eta salaketagatik eginiko ordainketen agiriak ere, baina kexa eragin zuten zioak aztertu gabe, Arartekoak eskaturikoak hain zuzen ere.

Horregatik, Arartekoak berriz ere jo behar izan zuen udalera, informazioa eman ziezaion.

Bigarren eskaerari erantzunez, Gasteizko Udalak jakinarazi zion kexagileak salaketaren aurka aurkezturiko alegazioak artxibatu egin zirela, eta hori justifikatzeko, zehapenari zegokion deskontua zeukan ordainketa egin zuela adierazi zuen, baita inguruabar horregatik zigor-prozedura bukatu zela eta zehapena irmoa zela ere, trafikoko araudiarekin bat etorri betiere. Halaber, bere jardura justifikatzeko beste oinarri bat eman zuen: legez nahitaez ordaindu behar dela kentzeagatik tasa kendutako ibilgailua berreskuratzeko. Eta zioenez, salaketa jarri zuen udaltzainak salaketa berretsi zuen, eta berriz ere adierazi zuen aparkatzeko txartelaren kolorezko fotokopia ageri zela ibilgailuan. Kexagilea da horren titularra, baina ez zen txartel orijinala, legez galdatzen den bezala.

Aipaturiko arrazoiak oinarri hartuta, hauxe ondorioztatzen zuen udalak: *"considerando ajustada a derecho la tramitación del procedimiento sancionador de tráfico, mediante la incoación de la denuncia motivadora del mismo, no procediendo la devolución del importe abonado en concepto de las tasas devengadas por la prestación del servicio de retirada del vehículo de la vía pública y, en su caso, depósito en almacén habilitado al efecto".*

Udalak ez du adierazitakoa baino informazio eta dokumentazio gehiagorik eman. Horrez gain, ez ditu balioztatu kexagileak ordaindutako zenbatekoa itzultzeko asmoaren oinarritzat hartzen dituen inguruabarrak, hau da, bere ibilgailuan ikusgai zegoen txartela aparkatzeko txartel originala zela eta originaltasun hori egiaztatu egin zela ibilgailuen udal biltegian, hain zuzen ere, ibilgailua berreskuratzera joan zenean arreta eman zioten udaltzainen aurrean.





3. Udalaren informazioa jaso ondoren, kexagileak Arartekoari jakinarazi zion kentzeagatiko tasaren likidazioaren aurka aurkeztu zuen errekurtsolari buruzko ebazpena emana zuela udalak, eta errekurtsua ezesteko ebazpenaren kopia eman zion.

Dokumentu horren arabera, errekurtsu hori ezesten da ibilgailuak kentzeko prozedurari aplikatu beharreko legezko araubidearen inguruko zenbait gogoeta orokorretan oinarrituz; horiek hauetan labur daitezke: a) legeak udala gaitzen du ibilgailuak kentzeko; b) legez, ibilgailu kentzeak dagokion tasa sortzen du; c) kentzeagatiko gastuak ibilgailuaren titularrak ordaindu behar ditu; d) legezkoa da tasa ordaintzeko eskatzea, kendutako ibilgailua itzultzeko aurretiazko betekizun gisa eta e) Zirkulazioko Arautegi Orokorren 91.2. artikulua kasuen zerrenda luzea jasotzen du, zeinetan ibilgailua kentzea justifikatzen duen eragozpen edo asaldatze larria dagoela jotzen den.

Gogoeta horiek oinarri hartutako manuak eta jurisprudenzia aipatzen dira.

Egintza horretan, gainera, kasu zehatza aztertzen zen, hauxe adierazita: *“a la vista del expediente se comprueba que la retirada del vehículo del recurrente se encuentra incluida dentro de los supuestos legitimadores en los artículos arriba indicados”*. Hauxe gehitu zen: *“El denunciante, conforme a lo dispuesto en el artículo 81.3 del R.D.L. 339/90, ha emitido el correspondiente informe de ratificación en la denuncia formulada”*. Arau-haustea *“Estacionar el vehículo en zona señalizada para uso exclusivo de minusválidos”* izan zela eta urraturiko artikulua Zirkulazioaren Erregelamendu Orokorreko 94.2.a) artikulua izan zela ere aipatu zuen.

Ebazpenean ez dira aztertzen kexagileak alegatutako inguruabarrak bertan aparkatzea legezkoa zela justifikatzeko, ezta horregatik kentzea ilegala dela justifikatzeko ere. Hala, erakunde honek ez jaso udalak ikertzeko gutxieneko jarduketarik burutu duenik inguruabar horiek egiaztatze aldera.

4. Udalak emandako informazioa eta kexagileak berak emandakoa ikusita, Arartekoak ulertu zuen, hain zuzen ere hurrengo epigrafean azalduko diren gogoetak oinarri hartuta, kexagileak ibilgailua berreskuratu ahal izateko eginiko ordainketa ez zela borondatezkoa, nahitaez eginikoa baizik, zehapenaren ordainketa bermatzeko behin-behineko gordailu gisa. Hain zuzen ere zehapena ezar zitzaiokeen zehapen-



prozeduran, hala denean, Frantziako egoiliarra baita. Hortaz, zehapen-prozeduraren izapidetzea ez zela egokia ulertu zuen Arartekoak.

Era berean, erakunde honek uste du udalak, adierazitako parametroen arabera, salaketaren ondorioz burututako zehapen-jarduketak berrikusi beharko lituzkeela eta, salatutako arau-haustea preskribatuta ez egotekotan, dagokion zehapen-prozedura izapidetu beharko lukeela salatutako egitateetan erantzukizunik ote dagoen ezartzeko. Bertan, kexagilearen alegazioak balioztatu beharko lituzke eta alegatzen dituen inguruabarrak egiaztatu, baita ordaindutako zenbatekoa itzuli ere, aipatutako alegazioak oinarritzat hartuta, salatutako arau-haustea behar bezala frogatu ez dela edo preskribatu dela jotzekotan.

Halaber, erakunde honek uste du udalak kentzeko egintza hori berrikusi beharko lukeela, kexagilearen alegazioak kontuan hartuz, horiek egiaztatu eta balioztatu beharra duelako. Azken finean, pentsatu izan zuen eskatzaileari itzuli behar zitzaiola ibilgailua kentzeagatik tasaren likidazioaren kontzeptuagatik ordaindutako diru-kopurua, hain zuzen ibilgailua berreskuratzeko, baldin eta ibilgailua kentzea ahalbidetzeko egitatea behar bezala egiaztatu gabekoa zela irizten baitzion.

Arartekoak balorazio hori helarazi zion udalari, horren gainean zuen iritzia eman ziezagun eta guk adierazitako ildoan jarduteko prest dagoen azal ziezagun.

Eskaera berriari erantzunez, Udalak borondatezko izaera kendu dio kexagileak salaketaren inguruan eginiko ordainketari, eta berriz dio inguruabar horrek prozeduraren amaiera eragin zuela, aplikatu beharreko araubide juridikoarekin bat etorri betiere. Era berean, hauxe adierazi du: *“según la legislación vigente no se exige en ningún caso depósito provisional para garantizar el abono de la sanción, independientemente se sea residente o no. No existe concepto alguno por ese motivo”*. Salaturiko gertaeren egiazkotasun-presuntzioa aipatu du argudiotzat, honako hau adierazita: ezarritako zigor-prozedurari jarraiki, salaturiko gertaera argitzeko eskatu ziola udaltzain salatzaileari, baina udaltzainak berretsi egin zuen ibilgailuan zegoen txartela kolorezko fotokopia zela. Honako hau ere gehitu du: ez duela zalantzan jartzen kexagileak txartel originala ibilgailuen udal biltegiak aurkeztu izana; izan ere, ohikoa da ezinduen aparkalekurako txartelaren titularrek txartelaren fotokopia erakustea agiri originala izan beharrean, eta horrek hautsi egiten du txartelaren gaineko araudia. Ukatu du, era berean, salaketak iritzi subjektiboa duenik; izan ere, horretaz ohartarazi zuen erakunde honek bere irizpenean geroago azalduko den hitzen bidez. Hauxe adierazi zuen orduan: *“en este caso el que ha aclarado si es o no fotocopia en color es el agente municipal, e*





insistimos en que tiene valor probatorio. De no ser así, se estaría cuestionando el papel de la autoridad en el procedimiento sancionador. Este agente municipal en su informe de ratificación, no ha dado lugar a duda alguna, por lo que el hecho de considerar apreciación subjetiva no puede compartirse porque haría tambalear el valor de autoridad que el propio procedimiento sancionador les ha adjudicado, en el art. 88 del RD 6/2015”.

Udalak ez du aurkeztu udaltzainaren berrespen-txostena, ezta ordurako emana ez zuen eta zehapen-prozedurarekin zerikusia zuen bestelako agiririk ere.

Horrez gain, azken erantzunean ez ditu aztertu kexagileak aparkamenduaren legezkotasuna egiaztatzeko alegaturiko inguruabarrak, eta ez du justifikatu inguruabar horiek ibilgailuen udal biltegian hartu zuten udaltzainekin erkatzeko frogarik txikiena egin izana. Azken finean, ez du argitu zein argibide eman zitzaion kexagileari ibilgailuen biltegian salaketa zela-eta eginiko ordainketa nahitaezkoa izatearen edo ez izatearen inguruan.

5. Kexagilearen kontra jarritako salaketa-orriaren aurrealdean (udalak erakunde honi emandakoa), honela deskribatzen da salaturiko gertaera: *“estacionar en zona reservada y señalizada para uso exclusivo de minusválidos sin autorización válida, impidiendo su uso”*, eta hauxe gehitu du: *“presenta tarjeta fotocopiada en color de origen francés de la región Pyrenees-Atlantiques con nº ... con fecha de caducidad 31-5-17”*.

Hala eta guztiz ere, dokumentu horretan ez da jaso urratutako manua, ezta zehapenaren zenbatekoa ere. Soilik eginiko ordainketa dago jasota, udaltzainak salaketa jartzean erabilitakoa ez bezalako koloreko tinta duena eta eskuz idatzia.

Hala, urratutako manua eta zehapenaren zenbatekoa kexagileak ordaindutako zenbatekoaren ordainagirian agertzen dira; izan ere, ordainagiri horretan adierazten da manua 1428/2003 Errege Dekretuak onetsitako Zirkulazioko Arautegi Orokorraren 94.2.a) artikulua dela eta zenbatekoa 200 euro.

Aurkezturiko dokumentazioaren arabera, udaltzain salatzaileak ez zuen jakinarazi egintzan kexagileari eginiko salaketa, eta erakunde honek ez du ondoren jakinarazi izanaren berri.

Gogoetak





1. Trafikoari buruzko araudian xedaturik dagoenez, trafikoa zaintzeko ardura duten polizia-agenteeek nahitaez salatu behar dituzte ikusten dituzten salaketak horrelako eginkizunak betetzen ari direnean, eta behin-behinean ezarri behar dute salaketan salaketaren zenbatekoa, baldin eta salatutako pertsonak Espainiako lurraldeko legeko bizilekua egiaztatzen ez badu. Era berean, araudiak ezartzen du, azkenengo kasu horretan, salatutako pertsonak unean bertan ordaindu behar duela aipaturako zenbatekoa eta ibilgailua ibilgetzeko agintzen du salatutako pertsonak ez ordaintzekotan (Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 87.1. eta 5. artikulua).

Araudi horri jarraiki, salatutako egitateak zehatu ahal izateko, administrazioak zehapen-prozedura bat izapidetu behar du; prozedura horretan ezarri behar du bidezkoa den edo ez egitate horiengatik zehapen bat ezartzea eta, hala badagokio, zehapenaren zenbatekoa zehaztea. Izapidetzen den bitartean, zehatutako pertsonak bere interesentzat komenigarriak diren alegazioak eta frogak aurkez ditzake eta organo eskudunak horiek balioztatu beharko ditu prozedura ebazteko (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 83. artikulua eta ondorengoak eta 95. artikulua).

Aipatu araudiak, hala eta guztiz ere, arau-hausteari legez dagokion zigorraren zenbatekoa murrizteko aukera ezartzen du salatutako pertsonak borondatez segidan edo salaketari alegazioak egiteko epean ordaintzen badu, eta horrek alegazioak azaltzeari uko egitea dakar. Hala, aukera horrek, arau-hauste oso larri batzuk baztertzeko dituen, prozedura berriazko ebazpenik eman gabe bukatzea dakar, baita alegazioak egiteari uko egitea ere, aurkeztekotan baliogabekotzat jotzen direnak (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 93. eta 94. artikulua).

Salaturiko pertsonak ordainketa gutxitua baliatu ahal izateko, ordea, udaltzain salatzaileak hala jakinarazi behar du salaketan eta dokumentu horretan ezarri behar du isunaren zenbatekoa edo, baldin eta jakinarazpena gauzatu ez balitz, administrazio zigortzaileak zehapen-prozedura abiarazi eta interesdunari jakinarazi prozedura abiarazteko erabakia, non aipaturiko zenbatekoa agerrarazi behar duen (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 86. eta 87. artikulua).

Aurretik adierazi den bezala, atzerrian bizi diren salatutako pertsonak legez behartuta daude salaketan ezarritako zehapenaren behin-behineko zenbatekoa





ordaintzera; hala ere, horrek ez du baztertzen dagokion zehapen-prozedura izapidetzea eta ezin da zehapenaren ordainketa murriztu boluntarioarekin parekatu, nahiz eta kasu honetan ordainketa murriztu boluntarioa ere aukeratu ahal den (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 87.5. artikulua).

Kasu hauetan, zehapen-prozedura ez izapidetzeak eragingo luke gordailua ordainketarekin parekatzea eta salaketa zehapenarekin eta horrek, adi berean, zehapena guztiz ezartzea ekarriko luke, nahitaezko prozedura izapidetu gabe (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 83.1. eta 86. artikulua).

Horregatik, Arartekoak ezin du bat etorri udalak helarazitako irizpenarekin. Horren arabera, ordenamendu juridikoan ez dago ezarrita isunaren zenbatekoa behin-behinean jartzea baldin eta salaturiko pertsonak legezko bizilekua beste herrialde batean badauka finkatuta.

2. Aurrekarietan azaldu den bezala, interesatuak dio ibilgailuen udal biltegian hartu zuten udaltzainek diru-kopurua ordainarazi ziotela, hain zuzen ere salaketaren zioz ordaindu zuena, ibilgailua itzul ziezaioten.

Erakunde honen iritziz, eskakizun horrek bat dator azaldutako lege araubide aplikagarriarekin. Izan ere, horren arabera, berriz ere adierazten da Espainiako lurraldean bizilekua izatea egiaztatzerik ez duten pertsonak nahitaez ordaindu behar dutela salaketan jarritako isunari dagokion behin-behineko diru-kopurua, eta hala egin ezean, ibilgailua geldiarazten da.

Udalak ez du argitu zein informazio eman zitzaien kexagileari udal biltegien salaketaren zioz eginiko ordainketa borondatezkoa edo nahitaezkoa izatearen inguruan.

Arartekoaren aburuz, datu horren berri izatea (berau egiaztatzea udalari berari dagokiola uste du), ordea, funtsezkoa da aipaturiko ordainketa nahitaezkoa izan zela edo borondatez egin zela zehaztu ahal izateko.

Udalak ez du egiaztatu kexagileak bere defentsan eginiko adierazpenak kexagilea hartu zuten udaltzainekin erkatu izana ere. Hauxe baino ez dute adierazi: aipaturiko udaltzainek jakinarazi ziotenez, aipaturiko ordainketa egin behar zuela ibilgailua berreskuratu ahal izateko, baina erakunde honetan ez dago jasota baieztapen horiek egiazkoak direla egiaztatzeko ikerketarik txikiena ere egin izana.





Arestian aipatu bezala, borondatezko ordainketa izan zela baizik ez du adierazi udalak, honako oinarri hau soilik aipatuta: legeak hala egitea ahalbidetzen duela eta, araudi aplikagarria ikusita, legez zegoen aukera bakarra zela ulertu zutela.

Udalak erakunde honi emandako datuekin, ordea, ezin uler daiteke borondatezko ordainketa izan zela, zeren eta, arestian esan den bezala, aipaturiko datu horiek ez baitute egiaztatzen ibilgailuen udal biltegian kexagileari horrelako ordainketa zela jakinarazi izana, ezta ibilgailua itzuli ahal izateko ordainketa hori egitea ez zela nahitaezkoa ere.

Horrez gain, udalaren informazioak diotenaren aurka, legez bazegoen beste aukera bat: eskatzaileak salaketa zela-eta eginiko ordainketa eginaraztea udal biltegian ibilgailua itzuli ahal izateko, arestian esan dugunez.

Udalak kexagileari ibilgailuen udal biltegian zein informazio eman zitzaion egiaztatu ez duela kontuan izanik, eta gainera ez du egiaztatu kexagileak horren inguruan eginiko adierazpenak udaltzainekin erkatu izana eta legez ordainketa egitea exijitzea bazegoela, Arartekoak uste du, eskuragarri dituen argibideak oinarri hartuta, sinesgarria eta lege araubide aplikagarriarekiko koherentea zela haxe eskatzea atzerriko egoiliarrek diren pertsonen: kexagileari salaketa zela-eta ordaindutakoa exijitzea ibilgailua itzuli ahal izateko, kexagileak dioenez, eta ordainketa ez zela horregatik borondatezkoa.

Erakunde honen ustez, ordea, ez dirudi bat datorrenik kexagileak bere defentsan adieraziotakoarekin eta iritzi horren oinarri diren frogagarriekin. Ez dator bat, esku artean dugun informazioa izanik, ibilgailuen udal biltegian agerrarazitako desadostasunarekin ere. Izan ere, salaketaren edo zigor-prozedura hasteko erabakiaren egunetik hogeit egun balioduneko epea egonik alegazioak egiteko edo ordainketa gutxitua gauzatzeko, hasiera-hasieratik borondatezko ordainketa egitea erabaki zuen.

Baldin eta kexagileak zehapenaren borondatezko ordainketa gutxitua egin izan balu, ordaintzearen ondorioak udalak aipaturikoak izango ziratekeen, hots, zigor-prozedura bukatzea, alegazioak aurkezteari uko egitea eta, horrelakorik aurkeztuz gero, ez aurkeztutzat hartzea, halaxe baitago ezarrita trafikolari buruzko araudian bertan, arestian esan bezala (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 94. art.).





Hala eta guztiz ere, inkongruentea da udalak uste izatea kexagileak borondatezko ordainketa egin zuela, ordainketa horri datxezkion ondorioekin, hots, ordainketa egitean bukatu egin zela zehapen-prozedura eta ez zituela zertan erantzun ez baloratu alegazioak eta, aldi berean, txostena eskatzea salaketa jarri zuen udaltzainari, zehapen-prozedurako alegazio horiei buruzkoa hain zuzen.

Nolanahi ere, berriz ere esaten da, interesdunak emandako argibideak ikusita (erakunde honen ustez, udalak ez ditu argibide horiek desitxuratu, dirudienez udalari hala bazegokion ere), salaketa zela-eta eginiko ordainketa nahitaezkoa izan zen ibilgailua berreskuratu ahal izateko eta ezar zekioken balizko zehapenaren behin-behineko gordailu gisa egin zen. Hortaz, hala bada, udalak nahitaez izapidetu behar du zehapen-prozedura kexagileak salatutako arau-haustean izan lezakeen erantzukizuna zehazteko eta zigor-prozedura horren baita kexagileak bere defentsarako eginiko alegazioak aztertzeke. Halaber, udala behartuta zegoen salatutako arau-haustean erantzukizunik ote zegoen edo ez adieraztera eta, erantzukizunik ez antzematekotan, interesdunari itzultzera, hala bazegokion, salatutako arau-haustearen ondorioz ezarri ahal zitzaion zehapenari zegokion zenbatekoaren gordailuaren kontzeptuan ordaindutako zenbatekoa.

3. Udalak frogatutzat jotzen du, nahitaezko salaketan egiazkotasun-presuntzioa eta berrespen-txostena oinarri hartuta (haren informazioaren arabera, salaketa jarri zuen agenteak eman zuena kexagileak alegazioen berri izan ondoren), kexagilearen ibilgailuan ezinduentzako aparkamendurako txartelaren fotokopia zegoela ikusgai eta kexagilea zela titularra. Izan ere, horrexek eragin zuen haren kontra jarritako salaketa eta ibilgailua aparkatuta zegoen tokitik kentzea.

Hala, trafikoa zaintzeaz arduratzen diren agintaritzako agenteek agintzen zaizkien eginkizunak burutzean jartzen dituzten salaketek froga-balioa dute, aurkako froga aurkeztzen bada izan ezik. Hala ere, salaketa jartzen duten agenteek salatutako egitatearen inguruan aurkeztu ahal dituzten froga-elementu guztiak aurkeztu behar dituzte (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 88. artikulua).

Hala ere, jaso dituen datuekin, Arartekoak uste du udalak, kasu honetan, froga-balio osoa eman diola salaketari eta hori ez dator bat Konstituzioan jasotako errugabetasun-presuntziorako eskubidearekin (Espainiako Konstituzioaren 24.2. artikulua), ezta aipatutako lege-arauketa horrekin ere. Izan ere, ez dira kontuan hartu interesdunaren alegazioak, ez da horiek egiaztatzeke inolako ikerketa-jarduerarik burutu eta aurkeztu izan ez balitu bezala jardun da.





Arartekoaren ustetan, ez dirudi oso zaila izango zenik aipaturiko alegazioak egiaztatzea, eta froga eztabaidaезинak dakartzate. Froga horiek berretsiz gero, desitxuratu geldituko litzateke salaketaren egiazkotasun-presuntzioa.

Nolanahi ere, aintzat hartu behar da interesdunaren alde ebatzi behar dela salaturiko gertaeren frogaren gaineko edozein zalantza, errugabetasun-presuntziorako eskubidea aplikatuta.

Erakunde honen aburuz, froga aztertzean kontuan izan behar da, era berean, salaketak berak elementu subjektiboa duela kexaren kasuan, hain zuzen ere txartela originala den ala ez erabakitzea, eta gainera, kexagilearen ibilgailuan ikusgai zegoen txartela Frantzian emandakoa zen.

Udalak dioenaren kontra, zehaztu beharra dago ezen azken iritzi honek ez duela aurretik juzgatzen edo zalantzan jartzen agente salatzailearen aginpidea, ezta salaketei legez ematen zaien balioa ere. Berriz ere esan beharra dago: ez da salaturiko gertaeren froga absolutuaren balioa. Arartekoaren iritziz froga hori osotasunean aztertzean kontuan izan beharko litzatekeen alderdiaz ohartaraztea da asmoa, besterik gabe. Izan ere, erakunde honen aburuz, froga hori egin beharko zatekeen, hauxe egiaztatzeko: kexagilea udal biltegian hartu zuten agenteek ea frogatu zuten ibilgailuan ikusgai zegoen txartela originala zela, kexagileak zioen moduan.

Udalak eman dituen azalpenak ikusita, hots, ez duela zalantzan jartzen kexagileak txartel originala aurkeztu izana ibilgailuen udal biltegian, komeni da zehaztea, halaber, kexagileak ez zuela alegatu bere defentsan ibilgailuen udal biltegian txartel originala aurkeztu izana. Hauxe alegatu zuen: ibilgailuen biltegian, ibilgailua kendu zutenean bertan ikusgai zegoen txartela atera zuela, hartu zuten agenteak bertan zirela, eta agenteek egiaztatu zutela txartel originala zela. Erabat desberdina da kexagileak dioena.

4. Emandako arrazoiak direla-eta, Arartekoak ezin du bat etorri udalak helarazitako beste arrazoibide batekin, hau da, kexagilearen kontra eginiko salaketaren ondoriozko zehapen-prozedura zuzenbidea betez burutu dela.

Xede horretarako, azpimarratu behar da, erakunde honi emandako informazioaren arabera, salaketan ez dela jaso urratutako manua, ezta arau-haustearen kalifikazioa ere. Horrez gain, ez da ezarri arau-hauste horri legokiokeen zehapenaren zenbatekoa.





Horrexegatik, ezin abiaraz zezakeen zehapen-prozedura, eta ez dago agerrarazita ondoren jakinarazi izana edo udalak zehapen-prozedura abiaraztea erabaki izana eta hasteko erabakia kexagileari jakinarazi izana, trafikoari buruzko araudiaren arabera nahitaezkoa dena. Horrez gain, araudi horren arabera, beharrezkoa zen hala egitea interesdunak salaketaren zioz eginiko ordainketa borondatezkoa izan zela ulertzeko (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 86. artikulua eta hurrengoak).

Aurrekarietan adierazi den bezala, dokumentu bakar batean jasotzen da zein den interesdunak urratutako eta salatzeo oinarritzat hartutako manua eta arau-hauste horri dagokion zehapenaren zenbatekoa; dokumentu hori eman zitzaion ordainagiria da eta bertan adierazten da Zirkulazioko Arautegi Orokorren 94.2.a) artikulua dela eta zehapenaren zenbatekoa 200 euro.

Arestian aipatu bezala, erakunde honi emandako salaketaren kopian, kexagileak ordaindutako zenbatekoa agerrarazi da. Aitzitik, ez da agiri agente salatzailek datu hori salaketa egitean bete ahal izana, zeren eta, salaketa berehala jakinarazi ez zenez gero, ezinezkoa baita une horretan aipaturiko zenbatekoa ordaindu izana eta ordainketa aipaturiko dokumentu horretan agerrarazi izana. Eginiko jarduketa ikusita, aukera bakarra dagoela uste du erakunde honek: salaketaren atal hori udal biltegian bertan bete izana, kexagileak ibilgailua berreskuratu ahal izateko zenbatekoa ordaindu ondoren. Halaxe izan zela egiaztatzen da datua eskuz idatzita agertu izanagatik, agenteak salaketa betetzeko erabili zuena ez bezalako kolore bateko tinta zuena.

Bestalde, Arartekoak ez du gaiarekin loturiko beste jarduketan berri, salaketa bera eta kexagileari ibilgailuen udal biltegian eman zitzaion ordainagiria baino. Esana dagoenez, udalaren informazioaren arabera, agente salatzaileak salaketan berretsi zuen bere bertsioa, baina berrespen-txostena ez zaio erakunde honi eman.

Gogorarazi beharra dago ofizioz hasten dela zigor-prozedura, salbu eta salaketa berehala jakinarazten bada, eta halaxe gertatu zen kasu honetan. Horrez gain, berehala jakinarazitako salaketa prozedura abiarazteko ekintza izan dadin eta borondatezko ordainketa gutxitua egiteko modua emateko, hauexek bildu behar dira salaketan, besteak beste: urraturiko manua eta zehapenaren zenbatekoa. Berrito esan behar da, ordea, kasu honetan ez dela agerrarazi hala egin izana (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 86. eta 87.3. artikulua).





Horrenbestez, ez da agerrarazi aginduzko zigor-prozedura izapidetu izana kexagileak salaturiko gertaeran izandako erantzukizuna argitzeko, aipaturiko araudian exijitzen denez, ezta prozedura abiaraztea erabaki izana ere (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 83.1. artikulua). Erakunde honen iritziz, ezin onar daiteke, azaldutako arrazoiengatik, prozedura abiarazi ez izana justifikatzea, hain zuzen ere bi alderdi hauek bidegabe berdinetsita: zehapenaren behin-behineko diru-kopurua nahitaez jarri beharra (atzerriko egoiliarrei exijitzen zaiena) eta borondatezko ordainketa gutxitua.

Horrexegatik uste du erakunde honek kexagileak salaketa zela-eta eginiko ordainketari soilik eutsi lekiokela baldin eta, zehapen-prozedura izapidetu ondoren, azkenean zehapena ezarriko balitz; erakunde honen ustez zehapen horren bermea jarri egin zen. Zehapena jarriko ez balitz, zehapen-prozeduran salatutako arau-haustean erantzukizunik ez dagoela antzematen delako edo arau-haustea preskribatu delako, eta horregatik prozedura hori izapidetu ezin bada, gordailua itzuli beharko litzateke ez lukeelako zentzurik izango. Izan ere, gordailu horren xede nagusia da sor litekeen zehapenaren ordainketa bermatzea.

Horrexegatik, erakunde honek berriz ere adierazi behar du Gasteizko Udalak berrikusi behar dituela salaketaren ondorioz eginiko zehapen-jarduketak, arestian esan diren parametroen arabera eta, baldin eta salaturiko arau-haustea preskribatu ez bada, zigor-prozedura izapidetu behar da, salaturiko gertaeratik kexagileari zehapena ezarri behar zaion jakiteko. Prozedura horretan aztertu beharko litzuzke kexagileak aurkezturiko alegazioak, eta bere defentsan alegaturiko inguruabarrak egiaztatu. Hartara, ordaindu zuen diru-kopurua itzuli beharko litzaioke, baldin eta, eginiko jarduketak ikusita, salaturiko arau-haustea behar bezala egiaztatu ez bada edo preskribatu badu.

5. Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak administrazioa baimentzen du ezgaitasuna duten pertsonak soilik erabiltzeko aparkaleku gisa gaitutako gunetan aparkatuta dauden ibilgailuak kentzeko baldin eta horiek baimentzen dituen bereizgarririk ez badute ikusgai. Horrez gain, ezartzen du ibilgailuaren titularrak, errentariak edo, hala badagokio, gidariak kentzeak sortzen dituen gastuak ordaindu behar dituela, ibilgailua itzultzeko aurretiazko betekizun gisa [105.1.e) eta 2. artikulua].

Bestalde, aipatutako bereizgarri hori arautzen duen araudiak eskatzen du, udalak dioen bezala, gunehorietako batean aparkatutako ibilgailuan ikusgai dagoen





txartela originala izateko [Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan txartela arautzen duen martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuaren 8.1.b) artikulua].

Hortaz, erakunde honek uste du udala legez gaituta dagoela ezgaitasuna duten pertsonentzako gordetako aparkalekuetan aparkatuta dauden eta aparkatzeko txartel originala ez duten ibilgailuak kentzeko, baita kentzeak sortutako gastuak ordaintzeko eskatzeko ere, ibilgailua itzultzeko aurretiazko betekizun gisa.

Hala ere, zehaztu behar da, kasu honetan, kexan zalantzan jartzen dela ez udalak ahalmena izatea edo ezik, baizik eta kentzeko baimentzen duen egitate-oinarria benetan existitzen den. Adierazi den bezala, kexagileak ziurtatzen du ibilgailuan ikusgai zegoen txartela originala zela eta hori egiaztatu egin zela udal biltegian, zehazki, bertan arreta eman zioten agenteen aurrean.

Hala eta guztiz ere, arestian aipatu bezala, udalak ez du kontu hori aztertu kexagileak kentzeagatiko tasaren likidazioaren aurka jarritako errekurtsuaren ebazpenean; izan ere, adierazi den bezala, dokumentu horretan, ibilgailua kendu izana justifikatzeko, soilik adierazi du udala gaituta dagoela ibilgailua kentzeko legez ezarritako kasuetan, interesdunak bere aparkalekuaren legezkotasuna defendatzeko aurkeztutako alegazioak egiaztatu gabe eta aztertu gabe kasu honetan kentzeko ahalmen hori behar bezala gauzatu ote zen eta berriz ere nabarmentzen da hori dela, hain zuzen ere, kexan azaldutakoa.

Horregatik, Arartekoak berriz ere adierazi behar du, era berean, udalak ibilgailua kentzeko egintza berrikusi behar duela, kexagilearen alegazioak kontuan izanik. Izan ere, arestian esan bezala, egoera erkatu eta aztertu beharko luke eta, ibilgailua kentzeari dagokion kasua behar bezala egiaztatu ez dela irizten badio, ibilgailua kentzeagatiko tasaren likidazio gisa ordaindutako diru-kopurua itzuli beharko lioke kexagileari.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, gomendio hau egiten diogu Balmasedako Udalari:

GOMENDIOA

Kexagilearen ibilgailua kentzeko egintza berrikus dezala adierazitako parametroen arabera, baita ezinduentzat gordetako aparkaleku batean horretarako ahalmena





ematen duen titulurik izan gabe aparkatzeagatik udaltzain batek ibilgailuaren kontra jarritako salaketaren ondorioz eginiko zehapen-jarduerak ere (... zk.ko salaketa).

